

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA FAKULTATEA. LEIOA

# **GRADU AMAIERAKO LANA BIOTEKNOLOGIA**

# Sasoiaren menpeko erreferentzia geneen transkripzio-profilen ikerketa

# *Chelon labrosus lazunean*

**Ikaslea: Ibañez Perez, Jone**

**Data:** Ekaina 2014

## Zuzendaria

Maren Ortiz Zaragoitia

Ikasturtea

2013/14

## Zuzendari ordea

Eider Bilbao Castellanos

# AURKIBIDEA

<b>1. LABURPENA.....</b>	<b>1</b>
<b>2. SARRERA.....</b>	<b>2</b>
2.1.    HONDOETAKO KORROKOIA EDO LAZUNA.....	2
2.2.    TRANSKRIPTOMIKA.....	6
2.2.1.    Denbora errealeko PCR kuantitatiboa (qRT-PCR).....	7
2.3.    ERREFERENTZIA GENEAK.....	9
2.3.1.    Aztertuko diren erreferentzia geneak.....	10
2.3.1.1. $\beta$ -Aktina (ACTB).....	10
2.3.1.2.    18S RNA erribosomikoa (18S rRNA).....	10
2.3.1.3.    1- $\alpha$ Elongazio faktorea (EF-1- $\alpha$ ).....	11
2.3.1.4.    Glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH).....	11
2.3.1.5.    TATA kutxa lotura proteina (TBP).....	11
2.3.2.    QuanT-iT OliGreen ssDNA metodoa.....	12

<b>3. HIPOTESIA.....</b>	<b>12</b>
<b>4. HELBURUAK.....</b>	<b>12</b>
<b>5. MATERIALAK ETA METODOAK.....</b>	<b>13</b>
5.1. LAGINAK.....	13
5.1.1. Erabilitako laginak.....	13
5.1.2. RNA erauzketa eta cDNA-ren sintesia.....	14
5.2. ITU SEKUENTZIEN LORPENA.....	15
5.2.1. Glizeraldehido 3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH) .....	15
5.2.2. TATA kutxa lotura proteina (TBP) .....	16
5.3. qRT-PCR BIDEZKO ITU GENEEN TRANSKRIPZIO MAILEN NEURKETA.....	19
5.4. QuanT-iT OliGreen.....	21
5.5. ERABILITAKO ERRAMINTA INFORMATIKOAK.....	22
5.6. ESTATISTIKA.....	22

<b>6. EMAITZAK.....</b>	<b>23</b>
6.1.    DISEINATUTAKO HASLEAK.....	23
6.2.    ITU GENEEN TRANSKRIPZIO MAILA: ERREFERENTZIA GENEEN BIDEZKO NORMALIZAZIOA.....	28
6.2.1.    Emeetan lortutako emaitzak.....	28
6.2.2.    Arretan lortutako emaitzak.....	31
6.3.    ITU GENEEN TRANSKRIPZIO MAILA: QuanT-iT OliGreen-aren BIDEZKO NORMALIZAZIOA.....	34
6.3.1.    Emeetan lortutako transkripzio-profilak.....	34
6.3.2.    Arretan lortutako transkripzio-profilak.....	36
<b>7. EZTABAINDA.....</b>	<b>38</b>
<b>8. ONDORIOAK.....</b>	<b>40</b>
<b>9. ESKER ONAK.....</b>	<b>41</b>
<b>10.BIBLIOGRAFIA.....</b>	<b>42</b>
<b>11.ERANSKINAK.....</b>	<b>i</b>

## 1. LABURPENA


*Chelon labrosus* lazuna oso erabilia da kutsaduraren eragina aztertzeko organismo zentinela bezala, oso kutsatuta dauden itsaso zabaleko zein itsasadarretako uretan bizirauteko gai baita. Kutsatzaileek zelulen, ehunen eta organismoen transkripzio-profilen aldaketa eragin dezaketela ondo deskribatuta dago. Aldaketa hauek neurtzeko, gene-expresioaren normalizazioa burutu behar da. Eskuarki, normalizazio prozesua burutzeko, metabolismo orokorreko geneak erabiltzen dira, hau da, erreferentzia geneak. Gene hauek, zelularen oinarritzko funtziak garatzeko beharrezkoak diren geneak dira eta zelula guztietan konstitutiboki adierazi ohi dira. Aurretik egin diren zenbait ikerketetan ordea, gene hauen transkripzio maila egoera esperimentalen, ehun motaren, garapen fasearen edota zelularen zikloaren arabera aldatu egiten dela behatu da. Hortaz, erreferentzia geneen transkripzio mailen aldaketak, aztergai den itu genearen interpretazio okerra eman dezake. Hori dela eta, azken urte hauetan, beste metodo batzuk garatzen ari dira geneen transkripzio maila normalizatzeko, esaterako, QuanT-it OliGreen metodoa. Testuinguru honetan, *Chelon labrosus* lazunean toxikologia-analisiak egiteko gehien erabiltzen diren erreferentzia geneen transkripzio-profilak aztertu dira indibiduo ar zein emeetan ugalketa zikloaren zeharreko fase gametogeniko desberdinatan (bost guztira). Horretarako, erreferentzia gene bat, itu gene konsideratuz, normalizazioa beste erreferentzia geneekiko zein QuanT-it OliGreen metodotik lortutako emaitzekiko burutu da. Azterturiko geneak  $\beta$ -aktina (BA), 18S RNA erribosomikoa (18S rRNA), 1- $\alpha$  elongazio faktorea (EF-1- $\alpha$ ) eta glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH) izan dira. Aztergai zeuden erreferentzia geneen transkripzio maila qRT-PCR bidez kuantifikatu ondoren, aurretik aipatutako bi metodoekiko normalizatu ziren. Normalizazioa erreferentzia geneekiko egin zenean, itu gene berak transkripzio-profil desberdinak aurkeztu zituen normalizaziorako erabili zen erreferentzia genearen arabera. QuanT-it OliGreen metodoaren bidezko normalizazioa egin zenean berriz, aztertutako erreferentzia gene guztien transkripzio-profila, fase gametogenikoen arabera aldatzen zela ondorioztatu zen. Beraz, itu gene baten transkripzio-profilaren azterketa egin nahi denean QuanT-it OliGreen metodoa erreferentzia geneak erabiltzea baino fidagarriagoa da.

## 2. SARRERA

### 2.1. HONDOETAKO KORROKOIA EDO LAZUNA (*Chelon labrosus* Risso, 1927)

Lazuna *Mugilidae* familiako arraina da. Familia honen barruan 80 espezie daude, eta espezie hauek mundu osoan zehar banatuta daude, nagusiki, klima epel eta klima tropikaletako itsasoetan (Nelson, 1994). Familia honetako espezie gehienak pelagikoak dira eta habitat desberdinetan aurkitu daitezke; kostaldean, estuarioetan, ibaietan, eta itsasoan, Ozeano Artikoa eta Antartikoa kenduta. Gainera, espezie hauek oso erabiliak dira organismo zentinela bezala ikerketa desberdinak burutzeko, esaterako; ikerketa parasitologikoak (Burgess et al., 1994; Merella et al., 2001), ikerketa filogenetikoak (Turan et al., 2005), ikerketa ekologikoak (Delgado de Carvalho et al., 2007) eta ingurune osasun ebaluazioak. (Orbea et al., 2002, Fossi et al., 2005).

Lazuna, ipar-ekialdeko Ozeano Atlantikoan, Itsaso beltzean, Itsaso Baltikoan eta Mediterraneo itsasoan bizi da (**1. Irudia**). Kostatik hurbil egoten da, estuario eta itsasadarretan adibidez. Honek duen banaketa geografikoa dela eta, adierazle biologiko modura oso erabilia da, gehien bat, kostaldeko inguruneetan.



1. Irudia: *Chelon labrosus*en banaketa geografikoa ([http://es.wikipedia.org/wiki/Chelon\\_labrosus](http://es.wikipedia.org/wiki/Chelon_labrosus)).


Morfologiari dagokionez, gorputz luzea eta zilindrikoa dauka eta oro har, 60 cm-ko luzera arte hazi daiteke, nahiz eta 75cm-koak ere aurkitu diren. Buru zapala eta handia dauka eta goiko ezpaina nahiko handia du. Gainera, gorputz osoa inguruaren arabera aldatu daitezkeen gris-zilar koloreko ezkataz estalita du. **2. Irudian** ikusi daitekeenez, bi hegats dortsal ditu, lehenengoak lau arantza zurrun ditu, bigarrenak ordea, arantza zurrun bat eta beste zortzi bigun. Bukaerako hegatsak hiru arantza zurrun eta bederatzi arantza bigun ditu. Horretaz gain, hesteko sei itsu ditu, denak tamaina berekoak. Ezaugarri hauek guztiek, *Chelon labrosus* beste espezieengatik desberdintzeko balio dute.



2. Irudia: *Chelon labrosus* heldua. ([http://www.magrama.gob.es/fr/pesca/ficha\\_esp.asp?id=293](http://www.magrama.gob.es/fr/pesca/ficha_esp.asp?id=293))

Animalia hau, obiparoa da eta neguan zehar ugaltzen da, azaroa eta apirila bitartean. Lazunak ez du dimorfismo sexualik aurkezten, horregatik, gonadaren azterketa histologikoa egin behar da lazun emeak eta arrak desberdintzeko. Gonada arrak, zein emeak, sasoiaaren arabera aldatzen diren 5 fase gametogeniko desberdin dituela ikusi da (**1. Taula**). Hasteko, iraila eta azaroa bitartean gametogenesia gertatzen da. Gero, abendua eta urtarrila bitartean gonadak fase heldura iristen dira eta lazun helduak itsasoan barrena joaten dira arrautzak errutera, beti ere, eskualde pelagikoan. Azkenik, maiatza eta abuztua bitartean, gonadak atseden fasean daude, uda amaierarako aldiz, ziklo gametogeniko berria hasten da (**3. Irudia**).

Bi sexuetan garapen gametogenikoa sinkronikoki gertatzen dela ikusi da, nahiz eta, arrak heldutasunera emeak baino lehenago heltzen diren. Arrek heldutasun sexuala jaio eta 2 urtetara lortzen dute, emeak aldiz, jaio eta hirugarren urtera arte ez dira ugaltzeko gai (McDonough et al., 2005).



3. Irudia: Euskal kostaldean Bizarro et al. (2012) *Chelon labrosus*-entzat hilabete bakoitzean aurkitutako indibiduoen fase gametogenikoen banaketaren deskribapena (2010-2011 urteetan). Goiko grafikoan arren datuak urdinez agertzen dira eta beheko grafikoan emeenak gorri.

1 Taula: *Chelon labrosus* lazunetan ikertutako gonaden fase gametogenikoen deskribapena ((Bizarro et al., 2012)-tik moldatua).

<b>Fase gametogenikoa</b>	<b>Arrak</b>	<b>Emeak</b>
<b>I. Heldugabea</b>	Testikulu ez-aktiboak, espermatozitoen garapen eskasa. Espermatogonien presentzia handia eta espermatozito gutxi.	Obario ez-aktiboa obozito aurre-bitelogenikoekin. Obarioaren horma oso mehea da.
<b>II. Gametogenesia</b>	Espermatozito primario eta sekundarioen presentzia eta espermatogonia nahikoa.	Obozito bitelogenikoak behatu daitezke.
<b>III. Heldutasuna</b>	Hodi seminiferoetan espermatozito primarioak eta sekundarioak garatzen ari dira. Espermatidak eta espermatozito helduak behatzten dira.	Obozitoak bitelo tantaz beterik agertzen dira. Obozito asko hidratatuta aurkitzen dira.
<b>IV. Errunaldia / Atresia</b>	Hodi seminiferoak handituta agertzen dira espermatozoide helduez beteta. Atresia egoeran, tubuluak erdi hutsik agertzen dira.	Obozitoen hiru laurdenek atresia azaltzen dute eta horma irregularrak eta amorfoak dituzte.
<b>V. Ez-aktiboa / Atsedena</b>	Espermatozoide gutxi. Periferian espermatogonia batzuk agertzen dira.	Gonada heldugabearen antza. Baino kasu honetan, obozitoak tamainaz handiagoak dira eta obarioen horma lodia da.

## 2.2. TRANSKRIPTOMIKA

Transkriptomikaren bidez, ehun edo zelula zehatz batean eta momentu zehatz batean dagoen mRNA azter daiteke. Horrela, zelula batean edo zelula multzo batean transkribatzen ari diren geneen gaineko informazioa lor daiteke.

Ingurunean gertatzen diren aldaketei aurre egiteko, izaki bizidunek geneen transkripzioa aldatzeko gaitasuna dute. Hori dela eta, esate baterako, ingurunera askatzen diren kutsatzaileek eragin zuzena dute ekosistema horretan aurkitzen diren organismoetan, zehatzago esanda, konposatu horiek eragin zuzena izango dute geneen transkripzioan. Beraz, kutsatzaile baten pean gertatzen den lehen aldaketa, gene mailan ematen da, eta ondoren aldaketa fisiologiko eta organismikoak emango dira. (Snape et al., 2004; Fent eta Sumpter, 2011).

Eragile zitotoxiko baten aurrean lehenengo induzitzen diren geneak, egokitzapenerako geneak (adibidez, metalotioneinak edota bero-talka proteinak) dira eta kutsatzaileen aurrean babesteko erabiltzen dira. Kutsatzailearen dosia handitzen bada edo esposizioa denboran luzatzen bada, organismoek gene berriak aktibatuko dituzte, galduak oinarrizko bide metabolikoak ordezkatu ahal izateko. Baino kutsatzailearen presentzia kronikoa bihurtzen bada, geneen expresioak aldatuz jarraituko du. Azkenean organismoak ezingo du homeostasia mantendu eta hil egingo da (Denslow et al., 2007). Ondorioz, kutsatzaile baten akzio-mekanismoa ezagutzeko moldatze geneak eta konpentsatze geneak ikertza garrantzitsua da. Transkriptomikak, gene horien ikerketa baldintza desberdinak pean egin ahal izatea ahalbidetzen du.

Transkriptomikak eskaintzen du (Bourlat et al., 2013):


1. Abisu goiztiarrerako biomarkatzaile molekular berriak aurkitu ahal izatea, horrela etorkizunean kutsatzaile batek izan ditzakeen efektuak iragarri litezke.
2. Kutsatzaileen edo estres eragileen akzio-mekanismoen aurkikuntza
3. Lortutako akzio-mekanismoen informazioa beste emaitza batzuekin integratu ahal izatea, kutsatzaileak ekosistema oso batean izan dezakeen eragina aztertzeko eta ez soilik organismo edo espezie isolatuetan.
4. Geneek eragile zitotoxikoen aurrean jarraitzen duten expresio-profilak deskribatu ahal izatea.

Hortaz, kutsatzaile baten ondorioz zein beste faktore fisiko-kimikoek eraginda, zelula mailan detektagarriak diren lehenengo aldaketak mRNA mailan izaten dira. Hori dela eta, mRNAAn ematen diren aldaketak aztertzeko teknika berrien garapenean interes handia dago. Orain arte gehien erabili diren teknikak, besteak beste, microarray-ak eta denbora errealeko PCR kuantitatiboa (qRT-PCR) izan dira.

### **2.2.1. Denbora errealeko PCR kuantitatiboa (qRT-PCR)**


qRT-PCRen teknika DNA itu jakin baten nukleotido sekuentzia amplifikatu eta kuantifikatzeko garatu da. Metodo hau PCR arruntean oinarritzen da baina erreaktibo fluoreszente baten erabilera gehitu du. Era honetan, sekuentziaren amplifikazioarekin batera fluoreszentzia igortzen du eta atari mailara heltzeko behar dituen zikloen arabera hasierako itu sekuentzia kantitatea kuantifikatzen du (VanGuilder et al., 2008).

PCR arrunt batean, lagin guztiak meseta fasera heltzen direnean neurten dira. Honek, fidagarritasun baxua du, izan ere, fase esponentzial desberdina duten laginak meseta fasera elkarrekin heltzea gerta daiteke eta alderantziz, fase esponentzial berdina izanik meseta fasera batera ez heltzea. Gainera, emaitzak aztertzeko agarosazko gelak eta etidio bromuroa erabili behar dira, azken hau, mutagenikoa delarik. PCR arruntak dituen desabantaila guzti hauek egiten dute qRT-PCR hain erabilgarria. Metodo honen bidez amplifikazioaren fase esponentziala kuantifikatu daiteke, fase hau, amplifikazioaren faserik fidagarriena delarik. Horrela lagin batetik bestera dagoen desberdintasuna zehaztasunez azter daiteke. Horretaz gain, sortzen den disoziazio-kurbari esker, PCR erreakzioan produktu bakarra eratu dela ziurtatu daiteke. Disoziazio-kurban tontor bat baino gehiago agertzen bada, PCR produktu bat baino gehiago dagoela adierazten ari da (**4. Irudia**). Hori dela eta, qRT-PCRa oso erabilia da geneen expresio-profilak aztertzeko (Wittewer et al., 1997; Valasek eta Repa, 2005)



**4.Irudia: Denbora errealeko PCR baten emaitza arruntak** (Valasek eta Repa, 2005). A: Anplifikazioaren grafikoa, fluoreszentzia maila zikloekin, Ct, (X ardatza) handitzen dela ikusten da. Y ardatzean igorritako seinalearen normalizazioa agertzen da. Lerro gorriak (threshold) PCRaren fase esponentzialaren hasiera lagin bakoitzerako adierazten du. B: Disoziazio-kurbaren grafikoa. Tontor bakarra ikusten denez, anplifikazio-produktu bakarra dagoela ziurtatzen da. DNA gabeko kontrol bat gehitu behar da (NTC: non-template control) hasle dimeroak anplifikatzen ez direla ziurtatzeko.

Teknika hau aurrera eramateko fluoroforo desberdinak erabili daitezke, baina gehien erabiltzen dena SYBR Green I da. Metodo honen bidezko kuantifikazioak, zunden bidezkoak baino simpleagoak eta merkeagoak direlako (Ponchel et al., 2003). SYBR Green I fluoroforoa, helize bikoitzeko DNA (dsDNA) tartekatzen da eta igortzen duen fluoreszentzia libre dagoenean baino 1000 aldiz handiagoa da (**5. Irudia**). Fluoroforo hau, dsDNArekin asoziatzen denean 480nm-ko uhin luzera duen argia xurgatzen du eta 520nm-ko uhin luzeran igortzen du (Valasek eta Repa, 2005). Oro har, zenbat eta dsDNA gehiago egon orduan eta fluoreszentzia handiagoa igorriko du. SYBR Green I-a ez da itu sekuentziarekiko espezifikoa eta sortzen diren dsDNA produktu guztiekin lotzen da, beraz, hasleen dimeroak sortzen badira arazoak egon daitezke igorritako fluoreszentzia neurterakoan. Horregatik, disoziazio-kurbaren bidez dimero hauen presentzia detektatu daiteke, eta PCR baldintzak optimizatz, hasle dimeroen sorrera ekidin (Ponchel et al., 2003).



5. Irudia: SYBR Green I metodoaren azalpen eskematikoa. (Gene Expression Guide, Applied Biosystems).

### 2.3. ERREFERENTZIA GENEAK

Geneen transkripzio mailak aztertzen direnean, hauen expresioaren normalizazioa egiteko beharra dago. (Dheda et al., 2005; Arukwe, 2006) Normalizazio prozesuan, metabolismo orokorreko geneak erabiltzen dira, hau da, erreferentzia geneak edo housekeeping geneak. Gene hauek, zelularen oinarrizko funtzioak garatzeko beharrezkoak diren geneak dira eta zelula guztietai konstitutiboki adierazi ohi dira.

Normalean, toxikologia arloan gene baten expresioaren kuantifikazio erlatibo zein absolutua egiteko, qRT-PCR egin ondoren,  $2^{-\Delta\Delta C_t}$  metodoa erabiltzen da (Livak eta Schmittgen, 2001). Metodo honen arabera itu genearen expresioa aztertzen da baldintza normaletan zein eragile baten pean (kutsatzalea adibidez). Lortzen diren Ct amplifikazio balioak, metodo berdinaren bidez neurtutako erreferentzia gene baten expresioarekiko normalizatzen dira eta horrela baldintza desberdinetan itu geneak duen expresioa konparagarri bihurtzen da (Pfaffl et al., 2004).

Orain arte, baieztapen hau onartu bada ere, azken aldian zalantzan jartzen ari da (Arukwe, 2006). Izan ere, erreferentzia geneen expresioa aldatu egiten da egoera experimentalen arabera, ehun motaren arabera, garapen fasearen arabera edota zelula zikloaren arabera. Ondorioz, erreferentzia genearen expresioaren aldaketa honek, aztergai den itu genearen interpretazio okerra eman dezake (Dheda et al., 2005). Hori dela eta, azken urte hauetan, beste metodo batzuk garatzen ari dira geneen transkripzioa maila normalizatzeko, esaterako, QuanT-it OliGreen metodoa.

### **2.3.1. Aztertuko diren erreferentzia geneak**

Orain arte, *Chelon labrosus* lazunean gehien erabili diren erreferentzia geneen artean,  $\beta$ -aktina (ACTB), 18S RNA erribosomikoa (18S rRNA), eta 1- $\alpha$  elongazio faktorearen (EF-1- $\alpha$ ) espresioa aztertuko da (Diaz de Cerio et al., 2012; Bizarro et al., 2014). Gene hauetaz gain, lan honetan glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH) eta TATA kutxa lotura proteinaren (TBP) espresio-profilak ere, aztertuko dira.

#### **2.3.1.1. $\beta$ -Aktina (ACTB)**

Aktina zelulen zitoeskeletoaren osagai garrantzitsuenetako bat da, zelularen biziraupenerako beharrezkoak diren prozesu gehienetan parte hartzen baitu, besteak beste; zelularen migrazioan, zelularen zatiketan, eta gene-espresioaren erregulazioan. Zelularen beharrizanen arabera, aktinazko pirusak oso azkar mihiztatu ala desantolatu daitezke. Ornodunetan oso kontserbatuta dauden sei aktina isoforma ezagutzen dira. (Rubenstein, 1990). Hauetatik lau, muskulu leunean eta eskeletikoan espresatzen dira gehien bat. Beste biak ordea,  $\beta$ -aktina eta  $\gamma$ -aktina, aktina zitoplasmatikoak dira eta nonahi espresatzen dira (Otey et al., 1986; Hoock et al., 1991). Hori dela eta,  $\beta$ -aktina erreferentzia gene giza erabili ohi da, nahiz eta ingurune baldintzen arabera, gene honen transkripzio maila *Chelon labrosus* lazunean aldatzen dela ikusi den (Bilbao et al., 2010).

#### **2.3.1.2. 18S RNA erribosomikoa (18S rRNA)**

Erribosomak zelula guzietan dauden erriboproteina globularrez eta RNA erribosomikoz (rRNA) osaturiko egiturak dira eta proteinen sintesiaz arduratzen dira. Erribosoma eukariotikoak 80S erribosomak dira eta bi azpiunitatez osatuta daude; azpiunitate handia (60S) eta azpiunitate txikia (40S). Alde batetik, 60S azpiunitatea, hiru rRNAz (5S, 5.8S eta 28S) eta 46 erriboproteinaz osatuta dago. Bestetik, 40S azpiunitatea, 18S rRNAz eta 33 erriboproteinaz osatuta dago (Nelson eta Cox, 2005). Zeluletan proteinen sintesia konstitutiboki gertatzen denez 18S rRNA kodetzen duen genea, erreferentzia gene bezala oso erabilia da, esaterako, *Chelon labrosus*en molekula mailako analisiak burutzeko (Raingeard et al., 2006; Puy-Azurmendi et al., 2013). Nahiz eta zenbait baldintza pean traskripzio-profilak aldatzen den (Bizarro et al., 2014).

### 2.3.1.3. 1- $\alpha$ elongazio faktorea (EF-1- $\alpha$ )

Elongazio faktoreek proteinen sintesirako behar diren proteinen taldea osatzen dute. Proteina hauen funtziogunetikoa erribosoman gertatzen den proteinen luzapena erraztea da. Eukariotoetan bi elongazio faktore bereizten dira eEF-1 eta eEF-2. Lehenengo elongazio faktorea bi azpiunitatez osatuta dago,  $\alpha$  eta  $\beta\gamma$  eta erribosoman tRNAREN sarrera kontrolatzen du. Bigarren elongazio faktoreak tRNAtik mRNAko translokazioa katalizatzen du (Nelson eta Cox, 2005). Beraz, EF-1- $\alpha$  oso erabilia da erreferentzia gene bezala, baita *Chelon labrosus*en (Raingeard et al., 2006).

### 2.3.1.4. Glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH)

Glizeraldehido-3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH) glukolisiko seigarren erreakzioa katalizatzen duen entzima bat da. Glukosa molekulak katabolizatzen ditu energia eta karbono molekulak lortzeko. Funtzio honetaz gain, zelula barruan beste hainbat funtzio ez-metaboliko dituela ikusi da, transkripzioaren aktibazioan edo apoptosiaren hasieran adibidez (Nelson eta Cox, 2005). Hau dela eta, ornodunetan oso erabilia da erreferentzia gene moduan, nahiz eta lazunean oraindik erabili ez den.

### 2.3.1.5. TATA kutxa lotura proteina (TBP)

TATA lotura proteina, DNAren TATA sekuentziarekin espezifikoki lotzen den transkripzio faktore bat da. Sekuentzia hau geneen eskualde sustatzailean egoten da geneen transkripzio gunetik hurbil. TBPk, beste proteina batzuekin batera, TFIID konplexua eratzen du, eta konplexu hau beharrezkoa da RNA polimerasa II-ren posizionamendu zuzena bermatzeko (Nelson eta Cox, 2005). Horregatik ornodunetan asko erabiltzen da erreferentzia gene moduan, baina, *Chelon labrosus* espeziean oraindik ez da ikertu.

### **2.3.2. QuanT-iT OliGreen ssDNA metodoa**

QuanT-iT OliGreen ssDNA metodoaren oinarria, oligonukleotido eta DNA harizpi bakarrera (ssDNA) lotzen den fluorokromo ultrasentikorra da. Metodo honen bidez soluzioan dauden oligonukleotidoak eta ssDNA sekuentziak kuantifikatu daitezke. Gainera, oso sentikorra denez 100 pg/mL baino kontzentrazio baxuagoan dauden liginak neurtu daitezke. Metodo honi esker qRT-PCR-a egiteko erabili den cDNA kontzentrazio zehatza kalkula daiteke eta emaitza hauek itu genearen expresioaren normalizazioa egiteko erabili.

## **3. HIPOTESIA**

*Chelon labrosus* lazunaren gonadan, erreferentzia geneen expresio-profilak urte sasoiaren arabera aldatzen da.

## **4. HELBURUAK**

*Chelon labrosus* lazunean erabiltzen diren erreferentzia gene desberdinak expresio-profilak aztertzearen asmoarekin, honako helburu hauek proposatu dira:

1. Bibliografia espezializatuan oinarrituriko bilaketa bat egitea erreferentzia gene kandidatu erabilienak aukeratzeko
2. Urte sasoien araberako garapen fase desberdinak dauden lazunen gonadetako RNA erautzeara eta cDNA sintetizatzea
3. Erreferentzia geneen transkripzio mailak aztertzea lazunen gonadetan qRT-PCR bitartez
4. Azterketa estatistikoen bitartez egonkorren adierazten diren geneak housekeeping moduan aukeratzea

## 5. MATERIALAK ETA METODOAK

### 5.1. LAGINAK

Lan honetan erabilitako gonadak, 2010ko irailetik 2011ko irailera bitartean arrantzatu ziren lazunenak (*Chelon labrosus*) izan dira. Lazunak, Pasaia-Trintxerpeko amaralekuaren arrantzatu ziren. Hilabetero 12 eta 30 lazun bitartean arrantzatu ziren kainabera erabiliz. Lazunak *in situ* prozesatu ziren.

Estatu mailan eta Europa mailan ezarritako araudia (Azaroaren 7ko legea 32/2007; Zuzendaritza 2010/63/UE) jarraitu zen arrantzatutako lazunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko. Horretaz gain, prozedura osoak, UPV/EHUko Animalien Ongizaterako Etika Batzordearen (AOEB) onarpena izan zuen (CEBA/152/2010/ORTIZ ZARRAGOITIA). Lazunak anestesiatu egin ziren benzokainatan saturatuta zegoen ur soluzio batean murgilduz, eta jarraian, burua moztuz, sakrifikatu ziren. Gonadak, osorik isolatu ondoren, pisatu eta zatitu egin ziren. Gonadaren zati bat RNAlater-dun (Life Technologies) ontzi batean sartu zen eta zuzenean nitrogeno likidotan izoztu zen. Laborategian, laginak -80°C-tara gorde ziren analizatu arte. Beste gonadaren zati bat, analisi histologikoak egiteko fixatu zen, lazun bakoitzaren sexua eta fase gametogenikoa zehaztu ahal izateko.

#### 5.1.1. Erabilitako laginak

Erreferentzia geneen transkripzio mailaren neurketa burutzeko, 88 lazunen (41 eme eta 47 ar) gonadetatik erauzitako RNAREN gainean ekoiztutako cDNA erabili zen. Lazunak, sexuaren arabera eta fase gametogenikoaren arabera sailkatu ondoren taldekatu ziren (**2. Taula**).

**2.Taula: Sexua eta fase gametogenikoaren arabera sailkatutako lagin kopurua.**

<b>FASEA</b>	<b>LAGIN KOPURUA</b>	
	<b>EMEAK</b>	<b>ARRAK</b>
<b>I</b>	9	9
<b>II</b>	8	10
<b>III</b>	9	9
<b>IV</b>	5	10
<b>V</b>	10	9
<b>GUZTIRA</b>	41	47

### **5.1.2. RNA erauzketa eta cDNAren sintesia**

Laginak TRIzol-etan (Life Technologies) homogenizatu ziren Hybaid Ribolyser (Hybaid, Ashford, UK) homogenizatzaila erabiliz. Homogenizatua eppendorf berri batera igaro zen eta 200µL kloroformo gehitu ziren, 1200rpm eta 4°C-tara zentrifugatu aurretik. Era honetan, proteinak, DNA eta RNA banatu ziren. Gainjalkina RNAren erauzketarako zutabe (RNeasy kit, Ambion) pasatu zen.

Kit-aren protokoloa jarraituz, lagin bakoitzeko RNA totala isolatu zen. Lagin bakoitzeko 1µg/µL RNA erabili zen cDNAren sintesia egiteko SuperScript Fist Strand Synthesis (Life Technologies) kitaren protokoloa jarraituz

Lan honen abiapuntua -40°C-tan gordetako cDNA laginak izan dira, aurreko pausuak burutuak egon baitira.

## 5.2. ITU SEKUENTZIEN LORPENA

Erreferentzia gene bakoitzaren transkripzio maila kuantifikatzeko denbora errealeko PCRa (qRT-PCR) erabili da.  $\beta$ -aktina (GenBank Accesion nº: AY836368), EF-1- $\alpha$  (GenBank Accesion nº: AY836369) eta 18S rRNA (GenBank Accesion nº: AY825252) geneen sekuentzia eta qRT-PCR bidez hauek amplifikatzeko beharrezkoak diren hasleak ezagunak ziren. GAPDH eta TBP geneen sekuentzia ordea eskuratu beharra zegoen. Horretarako, NCBI-n (National Center for Biotechnology Information) lazunarekin erlazio filogenetiko hurbila (Percomorpha) duten espezieen GAPDH eta TBP geneen sekuentziak bilatu ziren. ClustalW2 programa informatikoa erabiliz gene bakoitzaren sekuentziak lerrokatu ziren gene bakoitzaren sekuentzia kontserbakorrik aurkitzeko.

### 5.2.1. Glizeraldehido 3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH)

Erreferentzia gene honen sekuentzia amplifikatzeko hasle andeatuak diseinatu ziren, honako espezie hauek erabiliz: (1) *Dicentrarchus labrax* (Accesion nº: AY863148.1), (2) *Kryptolebias marmoratus* (Accesion nº: FJ438822.1), (3) *Oreochromis niloticus* (Accesion nº: JN381952.1), (4) *Platichthys flesus* (Accesion nº: AJ937522.1) eta (5) *Takifugu rubripes* (Accesion nº: AB704200.1). Sekuentzia hauek lerrokatuz 4 hasle bikote diseinatu ziren (**1. Eranskina**) eta **3. Taulan** ezarritakoaren arabera burutu ziren PCRak.

PCR bidez sekuentziak amplifikatu ondoren, amplikoi produktu bakarra lortu zeneko kasuetan, PCR produktua UPV/EHUko Sekuentziazio eta Genotipo Azterketen Unitatea SGiker zerbitzura bidali zen. Lortu ziren sekuentzia berriak NCBI-ko datu baseetako sekuentziekin konparatu ziren Blastn bidez. ClustalW2 programa erabiliz, arrainaren sekuentziak lerrokatu ziren (**2.Eranskina**) eta qRT-PCRand erabiltzeko *C. labrosusen* GAPDH genearekiko espezifikoak ziren bi hasle diseinatu ziren (**8. Taula**).

**3. Taula: *Chelon labrosusen GAPDH sekuentzia amplifikatzeko erabilitako hasle andeatuak eta PCR baldintzak.*** PCR guztiak hasierako 94°C eta 2 min-ko pausa eta amaierako 72°C eta 8 min-ko pausa izan zituzten. D: Desnaturalizazioa. H: Hibridazioa. L: Luzapena

	<b>Hasle andeatuak</b>	<b>Anplikoiaren tamaina (bp)</b>	<b>PCR baldintzak (35 ziklo)</b>
<b>A</b>	Fw1: (5') CAT TGA CCT GSA GTA CAT GG (3')	550	D: 94°C, 45s
	Rv2: (5') AGC RCC AGC ATC AAA GAT GG (3')		H: 55°C, 45s
			L: 72°C, 60s
<b>B</b>	Fw2: (5') CAT TGA CCT GSA GTA CAT GG (3')	350	D: 94°C, 45s
	Rv2: (5') TGA CYT TGC CSA CTG CCT AC (3')		H: 55°C, 45s
<b>C</b>	Fw1: (5') TYG AGA AGG CCT CYK CTC AC (3')	800	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5') TGA CYT TGC CSA CTG CCT AC (3')		H: 55°C, 45s
			L: 72°C, 45s
<b>D</b>	Fw2: (5') TYG AGA AGG CCT CYK CTC AC (3')	600	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5') AGC RCC AGC ATC AAA GAT GG (3')		H: 55°C, 45s
			L: 72°C, 60s

### 5.2.2. TATA kutxa lotura proteina (TBP)

TBP genea amplifikatzeko hasle andeatuak diseinatu ziren, horretarako honako espezieak erabili ziren: (1) *Oreochromis mossambicus* (Accesion nº: FN673692.1), (2) *Oryzias latipes* (Accesion nº: NM001278855.1) eta (3) *Takifugu rubripes* (Accesion nº: NM001099794.1). Sekuentzia hauek lerrokatuz 4 hasle andeatu bikote diseinatu ziren (**3. Eranskina**) eta zenbait PCR saio egin ziren.

Lehenengo saioan burututako PCR baldintzak **4. taulan** azaltzen dira. Bigarren saio batean, A eta B hasle bikoteentzako hibridazio (H) temperatura 55°C-tara jaitsi eta luzapen (L) denbora 60s-ra igo zen. C eta D hasle bikoteen kasuan hibridazio temperatura 54°C-tan jarri zen.

**4.Taula: *Chelon labrosusen TBP genearen amplifikaziorako diseinatutako hasle andeatuak eta lehenengo PCR saiorako baldintzak.*** PCR guztiak hasierako 94°C eta 2 min-ko pausua eta amaierako 72°C eta 8 min-ko pausua izan zituzten. D: Desnaturalizazioa. H: Hibridazioa. L: Luzapena.

	<b>Hasle andeatuak</b>	<b>Anplikoiaren tamaina (bp)</b>	<b>PCR baldintzak (35 ziklo)</b>
<b>A</b>	Fw1: (5') TAC TGG AGG ARC AGC AGA GG (3')	600	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5') GYT CRT AGC TGC TRA ACT GC (3')		H: 56°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>B</b>	Fw1: (5') TAC TGG AGG ARC AGC AGA GG (3')	500	D: 94°C, 45s
	Rv2: (5') GGA AAM CCR AGC TTY TGC AC (3')		H: 56°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>C</b>	Fw2: (5') GAR ASC TCT GGS ATH GTA CC (3')	350	D: 94°C, 45s
	Rv2: (5') GGA AAM CCR AGC TTY TGC AC (3')		H: 55°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>D</b>	Fw2: (5') GAR ASC TCT GGS ATH GTA CC (3')	250	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5') GYT CRT AGC TGC TRA ACT GC (3')		H: 55°C, 45s L: 72°C, 45s

Hirugarren saio bat egin zen, A eta B hasle bikoteak soilik errepikatuz; PCR zikloak 37°C-ra luzatu ziren, hibridazio (H) tenperatura 54°C-ra jaitsi eta luzapen (L) denbora 60s-tan mantendu zen. Azkenik, laugarren saiorako bost hasle andeatu bikote berri diseinatu ziren (**4. Eranskina**) eta hasle bikote bakoitzerako PCR baldintzak ezarri ziren (**5. Taula**). Anplikoi produktu bakarra lortu zeneko kasuetan, PCR produktua sekuentziatzera bidali zen.

**5. Taula: TBP genearen amplifikaziorako diseinatutako bigarren hasle andeatuen sekuentziak eta laugarren saioan erabilitako PCR baldintzak.** PCR guztiak hasierako 94°C eta 2 min-ko pausua eta amaierako 72°C eta 8 min-ko pausua izan zituzten. D: Desnaturalizazioa. H: Hibridazioa. L: Luzapena.

	<b>Hasle andeatua</b>	<b>Anplikoiaren tamaina (bp)</b>	<b>PCR baldintzak (35 ziklo)</b>
<b>A</b>	Fw1: (5') CATACTGGAGGARCAGCAGMGRCA(3')	430	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5')CWGCTAACCTVGACTGRTCCAC(3')		H: 61°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>B</b>	Fw1: (5')CATACTGGAGGARCAGCAGMGRCA(3')	230	D: 94°C, 45s
	Rv2: (5')TTTGTAGCTGRGGTACHATVCCAG(3')		H: 59°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>C</b>	Fw1: (5')CATACTGGAGGARCAGCAGMGRCA(3')	340	D: 94°C, 45s
	Rv3: (5')TCGTATTCTCATYATGACNCGAGC(3')		H: 59°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>D</b>	Fw2: (5')CTGGVATHGTACCRCAAGCTACAAA(3')	200	D: 94°C, 45s
	Rv1: (5')CWGCTAACCTVGACTGRTCCAC(3')		H: 59°C, 45s L: 72°C, 45s
<b>E</b>	Fw2: (5')CTGGVATHGTACCRCAAGCTACAAA(3')	100	D: 94°C, 45s
	Rv3: (5')TCGTATTCTCATYATGACNCGAGC(3')		H: 59°C, 45s L: 72°C, 45s

Gene bakoitzaren amplifikazioa burutzeko PCR medioari (**6. Taula**) (Life Technologies) 2 µL cDNA gehitu zitzaizkion. Erreplika bakoitza egiteko lazun desberdinaren gibeletik zetorren cDNA erabili zen.

**6..Taula: PCR medioa prestatzeko erabilitako osagaiak eta berauen kontzentrazioa**

OSAGAIAK	KONTZENTRAZIOA	BOLUMENA
$H_2O$	55nM	41,6 $\mu$ L
<b>Buffer</b>	10X	5 $\mu$ L
<b>MgCl<sub>2</sub></b>	50 mM	1,5 $\mu$ L
<b>dNTP</b>	10 mM	1 $\mu$ L
<b>Fw</b>	10 $\mu$ M	0,2 $\mu$ L
<b>Rw</b>	10 $\mu$ M	0,2 $\mu$ L
<b>T<sub>aq</sub></b>	5 U/ $\mu$ L	0,5 $\mu$ L
<b>GUZTIRA:</b>		48 $\mu$ L

PCR guztien produktuak % 1,5 agarosadun geletan migratu ziren eta behaketarako, etidio bromuroa erabili zen. Argi ultramoredun (UV) kamara batean gelean zegoen DNA banaketa ikusi zen.

### **5.3. qRT-PCR BIDEZKO ITU GENEEN TRANSKRIPZIO MAILEN NEURKETA**

Itu geneen transkripzio mailaren neurketa burutzeko 7300 Real-Time PCR System (Applied Biosystems) termozikldorean 96 putzudun plakak erabili ziren. Lagin bakoitzeko 3 erreplika aztertu ziren eta erreplika bakoitzean 2 $\mu$ L lagin (**7. Taula**) eta 18  $\mu$ L PCR medio sartu ziren. Medioaren osagaiak honako hauek izan ziren; RNasa gabeko H<sub>2</sub>O, SYBR Green I (Roche) eta hasleak (**8. Taula**). Gene bakoitza aztartzeko erabili ziren hasleak berdinak ziren eme zein arretan, baina, sexuaren arabera, hasleok erabiltzeko baldintzak aldatu behar izan ziren (**7. eta 8.Taulak**).

Anplifikazioa eta disoziazioa burutzeko erabili ziren baldintzak honakoak izan ziren; (1) ziklo bat; 2 min eta 50°C, (2) ziklo bat; 10 min eta 95°C, (3) 40 ziklo; 15 seg eta 95°C, (4) ziklo bat; 2 min eta tenperatura hasle bikoteen araberakoa (**8 .Taula**), (5) ziklo bat, 1 min eta 95°C, disoziazioa hasten da, (6) ziklo bat; 1 min eta 60°C, (7) ziklo bat; 15 seg eta 95°C eta bukatzeko (8) ziklo bat; 15 seg eta 60°C.

qRT-PCRa egin ondoren lagin bakoitzaren bataz besteko Ct balioa lortu zen. Kalkuluak egiteko balioak zuzendu ziren. Balio bakoitzari efizientzia totalaren zuzenketa faktorea aplikatu zitzaison (Livak eta Schmittgen, 2001). Era horretan, iturri genearen balio zuzenduak erreferentziazko genearen balioekin zatitzerakoan iturri genearen transkripzio balioak lortu ziren.

$$E_T^{-\Delta Ct}(\text{Iturri genea})/E_T^{-\Delta Ct}(\text{erreferentzia genea}) \quad (1)$$

Non,

Et: Efizientzia totala

$\Delta Ct$ : lagin bakoitzaren bataz bestekoa

**7. Taula: Gene bakoitzaren qRT-PCR bidezko anplifikaziorako ezarri diren lan-baldintzak.(Kontz.= kontzentrazioa)**


<b>GENEAK</b>	<b>EMEAK</b>		<b>ARRAK</b>	
	Hasleen kontz. (pmol)	Laginaren diluzioa	Hasleen kontz. (pmol)	Laginaren diluzioa
<b><math>\beta</math>-aktina</b>	25	1/2000	12,5	1/5000
<b>EF-1-<math>\alpha</math></b>	25	1/200	12,5	1/500
<b>18S rRNA</b>	50	1/200	12,5	1/500
<b>GAPDH</b>	12,5	1/200	12,5	1/50

**8. Taula: qRT-PCRak burutzeko erabilitako hasle espezifikoak.** Esperotako anplikoiaren tamaina eta erabilitako hibridazio tenperaturak.

GENEA	HASLEAK	TM (°C)	ANPLIKOIA (bp)
<b>β-aktina</b>	Fw:(5')AGCCAACAGGGAGAAGATGA (3') Rv:(5')GAGCGTAGCCCTCGTAGATG (3')	56	173
<b>EF-1-α</b>	Fw:(5')CAGGGATTCATCAAGAAC(3') Rv:(5')GTCCATCTTGTGACACCA(3')	53	184
<b>18S rRNA</b>	Fw:(5')GAGGCCCTGTTAATTGGAATGAG(3') Rv:(5') TAAGATACGCTATTGGAGCTGGAA(3')	56	115
<b>GAPDH</b>	Fw:(5') ACCCCACCAACATCAAATGG(3') Rv:(5')TGACAACCTTGAGGGAGTTG (3')	55	201

#### 5.4. QuanT-iT OliGreen

Quant-iT™ OliGreen® ssDNA Kit-aren (Life Technologies) protokoloa jarraituz qRT-PCRa burutzeko lagin bakoitzak zuen hasierako ssDNA kontzentrazioa determinatu zen. Neurketak, Synergy HT (Biotek) irakurlean eta 96 putzudun plaketan burutu ziren. Analisietarako kurba estandarra M13arekin egin zen (**6. Irudia**). M13a 18 basez osatutako oligonukleotidoa da. Honela, lagin bakoitzak igorritako fluoreszentzia ezagututa ssDNA kontzentrazioa kalkulatu zen. qRT-PCR bidez lortutako lagin bakoitzaren  $E_{T^{-\Delta C_t}}$  balioa, lagin horretan zegoen ssDNA kontzentrazioarekin zatituz, genearen transkripzio balioak lortu ziren.



**6 Irudia:** Quant-iT™ OliGreen® metodoaren bidez lortutako kurba estandarra.

## 5.5. ERABILITAKO ERRAMINTA INFORMATIKOAK

Lana burutzeko erabili diren erraminta informatiko desberdinen informazioa  
**9. Taulan** adierazita dago.

**9. Taula: Erabilitako Web orrialdeen helbidea, deskribapena erabilera eta egindako doikuntzen azalpena.**

Web orrialdearen izena	Helbidea	Deskribapena	Erabilera
<b>NCBI (BLAST)</b>	<a href="http://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi">http://blast.ncbi.nlm.nih.gov/Blast.cgi</a>	Programa informatiko bat da, sekuentzien arteko lerrokamenduak egiteko RNA, DNA eta proteina mailan.	Datu baseetako sekuentziak, PCR produktuetako anplikoien sekuentziekin konparatzeko erabili da.
<b>Pubmed</b>	<a href="http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed">http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed</a>	Estatu Batuetako Medikuntza Liburutegi Nazionalak kudeatzen duen biomedikuntza arloko artikuluak biltzen dituen sistema.	Lana egiteko behar izan den informazioaren iturri nagusia.
<b>ClustalW2</b>	<a href="http://www.ebi.ac.uk/Tools/msa/clustalw2/">http://www.ebi.ac.uk/Tools/msa/clustalw2/</a>	Programa informatiko bat da, sekuentzien arteko lerrokamenduak egiteko DNA eta proteina mailan.	Aztergai zeuden sekuentziak lerrokatzeko erabili da.

## 5.6. ESTATISTIKA

Gene bakoitzaren faseen Ct balioen aldakortasun koefizientea kalkulatu zen, ar zein emeetan. Lorturiko datuak SPSS.22 (SPSS Inc., Microsoft Co., Redmond, WA) erabiliz aztertu ziren. Taldeen arteko ezberdintasun estatistikoak ezartzeko Anova ez parametrikoa burutu ziren, indibiduoen artean zegoen aldakortasun zela eta. Lehenengo, KruskaleWallis testa eta ondoren, Dunn-en post-hoc testa egin zen. Desberdintasun esanguratsua  $p<0,05$

$$\text{Aldakortasun koefizientea} = (\text{Ct-en Desvest/Ct media}) \times 100$$

(2)


## 6. EMAITZAK

### 6.1. DISEINATUTAKO HASLEAK

#### 6.1.1. Glizeraldehido 3-fosfato deshidrogenasa (GAPDH)

PCR bidez sekuentziak amplifikatu ondoren gel batean migratu ziren. Hasle bikote bakoitzak tamaina desberdineko sekuentzia bat amplifikatu zuen (**7. Irudia**). Bikote bakoitzaren bi erreplika sekuentziatu ziren eta lortu ziren sekuentzia berriak NCBI-ko datu baseetako sekuentziekin konparatu ziren Blastn bidez (**10. Taula**). Honi esker, hasle bikote bakoitzak amplifikatutako sekuentzien luzera zehatza jakitea lortu zen (**10. Taula, II. Zutabea**). Sekuentzia guztiekin *O. fasciatus*-en GAPDH genearekin %93 baino antzekotasun handiagoa azaldu zuten. Gainera, kasu guztietaan E balioa  $1E^{-112}$  eta 0 bitartean zegoen.

- Esperotako amplikoiak: A: 550 bp, B: 350 bp, C: 800 bp eta D: 600 bp.
- Lortutako amplikoiak: A<sub>3</sub>: 526 bp, A<sub>5</sub>: 524 bp, B<sub>1</sub>: 322 bp, B<sub>5</sub>: 320 bp, C<sub>3</sub>: 763 bp, C<sub>5</sub>: 763 bp, D<sub>3</sub>: 558 bp eta D<sub>4</sub>: 563 bp.



**7. Irudia: GAPDH genea amplifikatzeko burututako PCR saioaren emaitzak.** A, B, C, eta D hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Sekuentziazioa egiteko lagin bakoitzeko bi PCR produktu ezberdin aukeratu ziren (zirkuluekin adierazita): A<sub>3</sub>: 526 bp, A<sub>5</sub>: 524 bp, B<sub>1</sub>: 322 bp, B<sub>5</sub>: 320 bp, C<sub>3</sub>: 763 bp, C<sub>5</sub>: 763 bp, D<sub>3</sub>: 558 bp eta D<sub>4</sub>: 563 bp.

**10. Taula: Sekuentziatzena bidalitako 8 laginen emaitzak Blastn bidez aztertzean eskuraturako homologia.**

**Bateragarritasuna:** Lerrokatu diren nukleotidoetatik bateragarriak izan diren nukleotido kopurua. **Deskribapena:** Aztergai den sekuentziarekin lerrokatu den sekuentziaren deskribapena ematen du. **E balioa** (expected value): zorizko gertaeraz, emaitza jakin bat lortzeko aukera zenbatekoa izan daitekeen adierazten du.

Sekuentzia	Luzera (bp)	Bateragar.	Deskribapena	Sekuentzien arteko gainjarketa	E balioa	Antzekotasun maila
A3	526	12-511 (499)	<i>Oplegnathus fasciatus</i> GAPDH isoform 2 mRNA, complete cds	%95	1E-112	%80
A5	524	13-524 (511)	“”	%97	0,0	%91
B1	322	18-321 (306)	“”	%94	2E-115	%92
B5	320	7-319 (312)	“”	%97	6E-115	%91
C3	763	23-757 (734)	“”	%96	0,0	%92
C5	763	23-759 (736)	“”	%96	0,0	%93
D3	558	14-542 (528)	“”	%94	0,0	%94
D4	563	18-544 (526)	“”	%93	0,0	%92


### 6.1.2. TATA kutxa lotura proteina (TBP)

PCR bidez TBP genearen sekuentzia zehatza lortzeko lau saio burutu ziren. Lehenengo hiru saioetan erabili ziren hasleek honako sekuentzia tamainak amplifikatzen zituzten; A: 600 bp, B: 500 bp, C: 350 bp, eta D: 250 bp. Lehenengo saioaren PCR produktuak gelean migratu zirenean ez zen inolako emaitzarik lortu (**8. Irudia**).



**8. Irudia:** TBP genea amplifikatzeko burututako lehengo PCR saioaren emaitzak. A, B, C, eta D hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. A: 600 bp, B: 500 bp, C: 350 bp, eta D: 250 bp.

Bigarren saioa egin zenean PCR baldintzak aldatu ziren amplifikazio prozesua optimizatzeko. PCRRaren emaitzak aztertu zirenean, D hasle bikoteak esperotakoa baino luzeagoa zen anplikoia eman zuen (**9. Irudia**), hala ere, bi PCR produktu sekuentziatzen bidali ziren. Lortutako sekuentziak NCBI-ko datu baseekin konparatu ziren eta *Chelon labrosus*en mitokondrioaren genomaren eskualde bat amplifikatu zela ondorioztatu zen. Lortutako sekuentziek 883 eta 844 bp zituzten eta *Chelon labrosus*en mitokondrioaren genomarekin %95-98 bitarteko homologia zuten. Hortaz, beste saio batzuk burutu ziren (**11. Taula**).




**9. Irudia:** TBP genea amplifikatzeko burututako bigarren PCR saioaren emaitzak. A, B, C, eta D hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. A: 600 bp, B: 500 bp, C: 350 bp, eta D: 250 bp. Baino D4 eta D5 anplikoiak sekuentziatu ziren (zirkuluekin adierazita).

**11. Taula: TBP amplifikatzean D hasle bikotearekin lortutako produktua.** Lorturiko sekuentziarekin burututako nukleotido mailako blastn homologia analisiaren emaitzak. **Bateragarritasuna:** Lerrokatu diren nukleotidoetatik bateragarriak izan diren nukleotido kopurua. **Deskribapena:** Aztergai den sekuentziarekin lerrokatu den sekuentziaren deskribapena ematen du. **E balioa** (expected value): zorizko gertaeraz, emaitza jakin bat lortzeko aukera zenbatekoa izan daitekeen adierazten du.


Sekuentzia	Luzera (bp)	Bateragar.	Deskribapena	Sekuentzien arteko gainjarketa	E balioa	Antzekotasun maila
D4	925	31-906 (869)	<i>Chelon labrosus</i> mitochondrion, complete genome	%94	0.0	%98
D5	991	24-868 (792)	<i>Chelon labrosus</i> mitochondrion, complete genome	%84	0.0	%95

Hirugarren saio batean, bakarrik A eta B hasle bikoteen errepikapena egin zen baldintzak aldatuz. Bainaz ez zen PCR produkturik lortu (**10. Irudia**).



**10. Irudia** TBP genea amplifikatzeko burututako hirugarren PCR saioaren emaitzak. A eta B hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. A: 600 bp, B: 500 bp.

Azken saioa egiteko bost hasle bikote berri diseinatu ziren. Esperotako anplikoien tamaina honako hauek ziren; A: 430 bp, B:230 bp, C: 340 bp, D: 200 bp eta E: 100 bp. Baino, PCR produktuak gelean migratu zirenean ez zen emaitzarik lortu (**11, 12 eta 13. Irudiak**).



**11. Irudia:** TBP genea amplifikatzeko burututako laugarren PCR saioaren emaitzak. A hasle bikoteei dagokie eta zenbakiak erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. A: 430 bp.



**12. Irudia:** TBP genea amplifikatzeko burututako laugarren PCR saioaren emaitzak. B eta C hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. B: 230 bp, C: 340 bp.



**13. Irudia:** TBP genea amplifikatzeko burututako laugarren PCR saioaren emaitzak. D eta E hasle bikote desberdinei dagokie eta zenbakiak hasle bikote bakoitzaren erreplika ezberdinei. Ez ziren esperotako emaitzak lortu. D: 200 bp, E: 100 bp.

Beraz, TPB genearen sekuentzia lortzeko saio ezberdinak burutu ziren arren, ezin izan zen TPB-ren sekuentziarik eskuratu.

## 6.2. ITU GENEEN TRANSKRIPZIO MAILA: ERREFERENTZIA GENEEN BIDEZKO NORMALIZAZIOA


Erreferentzia gene bakoitza itu gene kontsideratuz, gainontzeko erreferentzia gene bakoitzarekiko normalizatu zen eta emaitza grafikoki adierazi, fase gametogeniko bakoitzaren arabera.

### 6.2.1. Emeetan lortutako emaitzak

Azterturiko erreferentzia geneek ( $\beta$ -aktina, GAPDH, EF-1- $\alpha$  eta 18S rRNA) fase gametogenikoan zehar 7.86, 7.81, 8.47 eta 11.1-eko aldakortasun koefizienteak erakutsi zituzten, hurrenez hurren.

#### 6.2.1.1. $\beta$ -aktina hemen


Normalizazioa egiteko erabili zen erreferentzia genearen arabera gametogenesian zeharreko  $\beta$ -aktinaren transkripzio-profil desberdinak lortu ziren (**14. Irudia**). Horrela,  $\beta$ -aktina genearen transkripzio maila GAPDHaren genearekiko normalizatzean, antzeko transkripzio-profila eskuratu zen gametogenesian zehar. EF-1- $\alpha$  genearekiko normalizatzean, antzeko emaitza eskuratu zen orohar, V. fasea salbuespena izanik; izan ere, transkripzio maila altuagoa aurkitu baitzen azken honetan. 18S rRNA-rekiko berriz, fase gametogenikoaren araberako patroi argia aurkitu zen, maila altuenak II. eta IV. faseetan eta baxuena III. fasean erakutsiz.



**14. Irudia:** Gametogenesi fase ezberdinen araberako  $\beta$ -aktinaren transkripzio-profila erreferentzia gene desberdin bakoitzarekiko normalizatu ondoren. Fase bakoitzeko datua bataz bestekoa eta desbiderazio estandarrarekin adierazita dago. RQ: espresio erlatiboa.

### 6.2.1.2. GAPDH


Aurreko kasuan bezala, GAPDH genearen transkripzio mailaren normalizazioa EF-1- $\alpha$  genearen eta  $\beta$ -aktina genearen transkripzio mailekiko normalizazioa burutzean antzeko transkripzio-profilak lortu ziren (**15. Irudia**), transkripzio maila fase gametogeniko ezberdinen artean arinki aldatzen zelarik. 18S rRNA genearen transkripzio mailarekiko normalizazioa burutzean aldiz, guztiz desberdina zen profila lortu zen, mailarik altuenak II. eta IV faseetan eskuratu zeta eta esangarriki baxuenak III. fasean. Hau da,  $\beta$ -aktina/18S rRNA kasuan lortutakoaren antzeko profila eskuratu zen.



**15. Irudia:** Lazun emeen fase gametogenikoaren araberako **GAPDH**-ren transkripzio-profila erreferentzia gene desberdin bakoitzaren transkripzio mailarekiko normalizatu ondoren. Fase bakoitzeko datua bataz bestekoa eta desbiderazio estandarrarekin adierazita dago. RQ: expresio erlatiboa.

### 6.2.1.3. EF-1- $\alpha$

EF-1- $\alpha$  genearen transkripzio maila  $\beta$ -aktina eta GAPDH geneekiko normalizatzean, antzeko transkripzio-profila aurkitu zen azterturiko fase gametogeniko ezberdinetan (**16. Irudia**). 18S rRNA genearekiko normalizatu ondoren berriz,  $\beta$ -aktina eta GAPDH geneekin lortutako transkripzio-profilarekin zer ikusirik ez zuen profila lortu zen. Horrela, EF-1- $\alpha$ -ren transkripzio maila, azterturiko fase gametogenikoen arabera aldatzen zela aurkitu zen, maila baxuenak III. fasean lortuz eta altuenak ondorengo IV. eta V. faseetan.




**16. Irudia:** Gametogenesiaren fase ezberdinetan zehar EF-1- $\alpha$ -ak erakusten duen transkripzio-profilera erreferentzia gene desberdinen transkripzio mailarekiko normalizatu ondoren. Fase bakoitzeko datua bataz bestekoa eta desbiderazio estandarrarekin adierazita dago. RQ: expresio erlatiboa.

#### 6.2.1.4. 18S rRNA

18S rRNA genearen transkripzio maila EF-1- $\alpha$ ,  $\beta$ -aktina eta GAPDH geneen transkripzio mailekiko normalizatzean, oso antzeko transkripzio-profilak lortu ziren.

**17. Irudian** ikusten denaren arabera, 18S rRNAren transkripzio mailak balio maximoa III. fasean zeuden emeetan eskuratu zuen. Gainontzeko fase gametogenikoetan zeuden emeen gonadetako 18S rRNA genearen transkripzio maila berriz, antzekoa zen kasu guztietan.




**17. Irudia:** Lazun emeen fase gametogeniko ezberdinaren araberako 18S rRNA genearen transkripzio-maila erreferentzia gene desberdin bakoitzaren transkripzio mailarekiko normalizatu ondoren. Fase bakoitzeko datua bataz bestekoa eta desbiderazio estandarrarekin adierazita dago. RQ: expresio erlatiboa.

### 6.2.2. Arretan lortutako emaitzak

Azterturiko erreferentzia geneek (GAPDH, EF-1- $\alpha$  eta 18S rRNA) fase gametogenikoan zehar 6.37, 5.98 eta 13,26ko aldakortasun koefizienteak erakutsi zituzten, hurrenez hurren.

#### 6.2.2.1. $\beta$ -aktina


$\beta$ -aktinaren disoziazio kurba, fase gametogenikoaren arabera aldatzen zela behatu zen. Batetik, inespezifikotasunak lortzen ziren eta bestetik fase ezberdinetan produktu inespezifiko hauek itxura ezberdina erakusten zuten. I., II. eta V. faseetan lortzen ziren grafikoak nahiko berdintsuak ziren (**18. Irudia**) baina, III. eta IV. faseetan tontor nagusiaren alboan beste tontor txikiago bat agertzen zen (**18. Irudian** gezi gorriaz adierazita). Lortzen ziren inespezifikotasunak zirela eta, eta bereziki hauek gabeko amplifikazio espezifikoagoak lortzeko ezintasunari lotuta, arren analisietan  $\beta$ -aktinaren transkripzio maila ez erabiltzea erabaki zen.



**18. Irudia:**  $\beta$ -aktinaren qRT-PCR bidezko amplifikazioaren ondoko disoziazio-kurbaren emaitzen irudia fase gametogeniko bakoitzean. Gezi gorriaz bigarren tontorra adierazita dago. Bakarrik III. Eta IV. faseetan agertu zen.

### 6.2.2.2. GAPDH


